

# EUSKAL-KULTURAREN ALDE

10, Bd. Alsace-Lorraine  
BAYONA (Laburdi) B.-P.

Bayona'n, 1963'ko azillaren 30'gn.

Irujo'tar Imanol jauna

PARIS

Agur jauna,

Jakingo duzu noski, Agirre'tar Joseba Andoni zenaren oroitzapen-tan, gure Batzorde onek nola sortu zuen, ua il eta bereala, **Agirre-Saria**. Sari ori, ondoko lau urteetan euskeraz egiñik agertuko zan liburu oberenari bear zitzaion eman.

Lau urte oiek iraganak izango ditugu datorren epaillaren 22-an. Eta andik laisterren eman nai genuke saria.

Saritzat milla dollar ipiñi genuen, diru ori gure Lendakari Joxe Antonio zenaren lagunen artean biltzeko asmoetan. Argatik gatoz gaur zure-gana ere, gogotik lagundu naiko gaituzulakoan.

Berez, bakoitzari 25 dollar (edo 100 libera berri, edo 1000 peza) eskatzea genuen pentsatua. Baiña zer esanik ez : biotzetik bialdutako eskein-tza txikienak ere artuko genituzkela estimu aundienarekin. Norbaitek geixe-ago eman ahal eta naiko ba lu ere... ez giñake arekin asarretuko. Ola bearba ez baizitaken **Agirre-Saria** urte bateko bakarrik izanen.

Eskerrikasko, jauna. Agirre zenaren omenetan euskeraren alde bai gabiltz, badakigu ola eskean ibiltzea ere barkatuko diguzula gogotik.

Zure adiskide eta serbitzariak.

Lendakaria :

*Morgan - Olaso*

Diruzaña :

*Man del Sot*

Idazkaria :

*Miestararu'tar A.*

Emaitzak zuzenbide ontara biali litezke :  
La Sota'tar Manu jaunari  
« Etchepherdia » - Chemin du Phare  
BIARRITZ (Laburdi) B.P.

